Literatura →

Hegaldatu bai, iritsi ez

Alex Gurrutxaga

Jabi Santa Cruzek haur eta gazte literatura lehendik landua bazuen ere, hauxe da espreski helduei zuzenduriko bere lehen liburua. 2011ko Blas de Otero Bilbo Uria IV. Poesia Lehiaketa irabazi zuen bere lanak, eta ondotik etorri da *Baso ilun itoan* liburuaren argitalpena (Iñaki Geijoren marrazki ederrekin).

Hiru ataletan banaturik dauden 65 poemak osatzen dute liburua, eta esan daiteke poema bilduma baino gehiago poesia liburua dela; izan ere, batasun handia du lanak, tonua konstantea da eta, oro har, poema guztiak hari beraren bueltan kokatzen dira. Sariketaren epaimahaiak poesia honen serenitatea eta melankolia nabarmendu zituen, eta baita erakusten duen minari buelta emateko ahalmena ere.

Sentsibilitate poetiko agerikoa du Santa Cruzek. Poeta izadiari begira dago, eta bere begirada liluratua da: mugimendu txikiak behatzen ditu, ñabardurak, izaki xumeei dagozkienak (bereziki txoriak, baina baita loreak edota zuhaitzak ere). Ez da begirada ironikoa; alderantziz, funtsean poesia analogikoa da. Alegia, gertakari xume horiek gai eta ideia unibertsalagoak iradokitzen dituzte. Txikitasunetik unibertsalerako bidea da poesia honek bilatzen duena, instant batez arteak (poetaren begiradak) harrapatu nahi balu bezala gainditzen gaituen «zerbait absolutua»: denboraren iragatea, heriotza... Zein da, ordea, poesia mota honen arazo nagusia (eta beharbada guztiena)? Analogiak funtzionatzen ez duenean, irakurleak ikusten ez duenean konkretutik unibertsalerako jauzirik, ez denean egiten detailetik orokorrerako bidea, poesia hegaldatu egiten dela, baina iritsi ez. Hortxe dago liburu honen muga nagusia: aipaturiko bidea burutu gabe geratzen da maiz, eta poemak deskribapen poetiko ederraren mailatik haratago joan ezinik geratzen dira.

Maiz, diot, ez beti. Izan ere, badaude ongi funtzionatzen duten poemak. Esandakoa argi erakusten duen adibide bat ekarriko dut (*Urria* poema): «Urrutiko pagoak dira / lehenak gorritzen. / Urrutiko mendiak / lehenak zuritzen. / Patuaren horzkada, / gero eta gertuago. / Zeruko seinaleek / gezurrik ez, / tamalez». Neguak, finean, guztiok harrapatzen gaitu.

Tonu narratiboa da poema hauetan nagusi, eta egileak ez du baliatzen ez prosodia aldetik ez pentsamendu-figuren aldetik aparteko errekurtsorik. Aldiz, irudiaren lanketa agerikoa da: horrek eusten dio Santa Cruzen poesiari. Tartean-tartean, gainera, eraiki ditu tropo ederrak, metaforak nagusiki (adibidez: «Haizeen harietan poema etengabea...»). Dena esateko, badira poesiaren sotiltasuna itsusten duten topiko zenbait ere, bai adjektibazioan («haize eme», «soinu bigun», «goiko bortu», eta abar) bai sinboloetan (esaterako, gutxienez Pizkundetik etengabe erabili izan den «bortu-ibar» oposizioa *Basapiztia* eta *Behean. Goian* poematan, deus berritzailerik gabe). Edonola ere, izadiari loturiko iruditeria nahiko fina da oro har.

'BASO ILUN ITOAN'
- **Egilea:** Jabi Santa Cruz.
- **Argitaletxea:** Erein.

Santa Cruzek baliatzen duen beste errekurtso interesgarri bat (tradizioz modernista) da poemei tituluak jartzerakoan desbideratze moduko batekin jolastea. Horrela, maiz titulua poemaren osagarria da, eta ez hainbeste poemaren azalpen edo sintesia. Adibidez, *Orbana* izena duen poema da hau: «Tiro hotsa laburra ohi da. / Haren oihartzuna, / amaigabea». Irakurleak erlazionatu beharko du titulua poemarekin.

Esango nuke, amaitzeko, badagoela poesia honetan gailentzen den bizi-kondizio bat (egoera ontologiko bat, nahi bada), ehiztariarena hain justu: hiltzailea bera da, baina era berean «lakioan harrapatuta» dago, «gatibu»; berak osten du bizia, baina «heriotzaren misterioaz sakon-sakonean» hunkitzen daki; Jainko txiki izatera jolasten da, eta beharbada horrexegatik, bizitzaren tragedia ezagutzen du.

'EUSKAL HERRIAREN HISTORIA LABURRA'
- **Egilea:** Iñaki Egaña.
- **Itzultzailea:** Xabier Aranburu Zinkunegi.
- **Argitaletxea:** Txertoa.

Euskal Herriaren historiako gertakaririk garrantzitsuenen berri ematen du liburuak, estilo ulerterrazean. Horrez gain, 50 data nagusiren berri ematen du, eta 30 pertsonaia garrantzitsuren biografia laburrak ere aurkituko ditu irakurleak.

'ARTEA DURANGALDEAN GAUR'
- **Egilea:** Mikel Onandia Garate.
- **Argitaratzaileak:** Astarloa Kulturgintza eta Durangoko Udala.

Durangaldeko gaur egungo artisten berri ematen du Mikel Onandia Garate Berria-ko arte kritikariak idatzitako liburu honek, lau atal nagusitan banatuta: *Figurazioa eta errealismoa*, *Horizonte abstraktuak*, *Lengoaia artistiko berriak* eta *Errealitate fotografikoak*.

'KILIMANJAROKO DIAMANTEA'
- **Egilea:** Yoseba Peña.
- **Argitaletxea:** Ibaizabal.

Berainek udaleku bereziak bizi ditu aurten, Tanzanian. Han bilduko da arduradunarekin: Johan von Silk-ekin, Arka Beltza aurkitu zuen espedizio mitikoko kidearekin, hain zuzen. Safariaren parte hartzaileen artean haren alaba Emmy dago, eta harekin maiteminduko da Berain.

↓ **Haur eta gazte literatura**

Hizkuntzarekin jolastu

Hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasatzea. Horixe da Iñaki Arranzek proposatu digun *Hizkimilikiliklik!* liburuan.

Liburu benetan bitxia da, gozatzekoa, oso gutxitan argitaratzen diren horietakoa. Baiki, onartu behar da gustuen kontua hor dagoela, jolasa umorea bezala baita, bakoitzak bere erakoa nahi izaten du eta gustatu ezean ez du atseginik sortzen. Iruditzen zait, halere, gustu guztietara iristeko moduko proposamenak daudela.

Denera 80 orrialde hartzen dituzten 28 proposamen dira. Bakoitzean hizkuntzarekin era batera edo bestera jolasten da. Adibide bat jartzearren, hamalaugarrengoa *Denok zer edo zer falta* liburuaren esentziaren laburtzaile izan liteke: bertan ipuin bera bost aldiz kontatzen zaigu, aldi bakoitzeko bost bokaletako bat erabili gabe.

Esku artean hartu dudanean, Joxantonio Ormazabalen *Hiztegi jolastia* ekarri dit gogora, alfabetoko letrekin jolas egiten zenekoa. Baina Arranzen proposamena harantzago doa euskararen hizkuntz eta jolas baliabideak ustiatzen.

Lan zaila egin du barne mekanika konplexua duten pieza irakurterraz hauek eraikitzeko, baina ez da hutsetik hasi. Aurretik argitaratua zuen teoria liburu mardul bat, *Hitza azti* (2006, Alberdania), hitz jokoen azpiko logika eta mekanismoak azaltzen. Bertan euskal idazleen obrak arakatu zituen hizkuntz baliabide hauek identifikatu, deskribatu, sailkatu eta, oroz gain, aldarrikatzeko. ■ **IMANOL MERCERO**

'HIZKIMILIKILIKLIK!'
- **Egilea:** Iñaki Arranz.
- **Ilustrazioak:** Ima Mendiola.
- **Argitaletxea:** Ibaizabal.

Zizel-lanak

Ez dakit zer duten diseinatzaile grafikoek, baina haur literatura egiten hasten direnean ahozabalik uzten dute literaturzalea. Kondairak hala dio Leo Lionni-ri buruz (Frederick, Igeritz...), hala ezagutu genuen Elena Odriozola duela bi hamarkada (pentsa al liteke egungo haur literatura bere ilustraziorik gabe?) eta halatsu etorri zaigu Iban Barrenetxea: txunditu egiten gaituzte.

Obra honek Gaztelaniaz idatzitako Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria jaso zuen iaz, bai eta Espainiako liburu saltzaileen CEGAL elkartearen 2011ko liburu onenaren saria ere, jatorriz *El cuento del carpintero* izenarekin argitaratu zelako.

'ZURGINAREN IPUINA'
- **Egilea:** Iban Barrenetxea.
- **Itzultzailea:** Arkaitz Goikoetxea.
- **Argitaletxea:** Txalaparta.

Orain euskaraz argitaratu da, eta itzulpenak ez dio kalte egin; alderantziz, jatorrizkoak zuen hizkera antigoaleko «bitxi» horren ordez idazkera gaurkoago batek mesede egin dio testuari, fokua kontaketan ezartzen duelako, idatz-moldeetan despistatu gabe.

Istorio sinple bat aurkezten zaigu, barne mekanika eraginkor batekin, «bakarrik» egiten duena aurrera.

Kontaketa nagusiaren barruan bizpahiru anekdota txertatuta ipuinak sakontasuna irabazi du, irudimenaren suspertzaile bihurtzen diren alboetako igarobideak sortuta. Eta ilustrazioarekin ere berdin: antigoalekoak diruditen ordenagailuz egindako ilustrazioek —sepia eta gris koloreetan— hari nagusitik aparte dauden entretenigarriak eskaintzen dituzte, irakurketa bisualari plazera gehitzen diotenak. ■ **IMANOL MERCERO**